

PRENTSA-OHARRA

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Espainiako 2013-2020ko Estrategiaren parte den INNVIERTE programaren barruan

Iberdrolak eta CDTIk 700.000 euro inbertituko dituzte EAEko Atten2 enpresa teknologikoan

- **Atten2k, IK4-TEKNIKERen *spin off*ak, Gipuzkoako Parte Teknologikoan du egoitza, Eibarren, eta elektrizitatearen sektorean lubrifikatzaileak monitorizatzeko sentsoreak diseinatzen, fabrikatzen eta merkaturatzen ditu.**
- **Atten2ren jarduera gaur goizean aurkeztu dute, Bilboko Iberdrola Dorrean egin den topaketan.**

Iberdrolak eta Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren mendeko Garapen Teknologiko eta Industrialerako Zentroak (CDTI) hitzarmen bat sinatu dute gaur Atten2 Advanced Monitoring Technologies SL-rekin. Hitzarmen horren bitartez, bi erakundeek 700.000 euro inbertituko dituzte konpainian, bi zatitan.

INNVIERTE programaren parte da eragiketa hori. Iberdrolak, arrisku-kapitaleko bere funts korporatibo Perseoren bidez, eta CDTIk, programa horren bidez, energiarekin eta ingurumenarekin lotuta lan egiten duten konpainietan inbertitzen dute INNVIERTE programan.

Inbertsio horrekin, Iberdrola eta CDTI Atten2ren kapitalean sartuko dira, haren garapena sustatzeko eta bere sektorean sendotzeko.

Hala adierazi dute CDTIko idazkari nagusi Margarita Gabiolak, IK4-TEKNIKEReko zuzendari nagusi Alejandro Bengoak eta Iberdrolako Berrikuntza, Jasangarritasuna eta Kalitateko zuzendari Agustín Delgadok, Bilboko Iberdrola Dorrean gaur goizean egin den ekitaldian. Atten2 IK4-TEKNIKERen *spin off* bat da, eta Gipuzkoako Parke Teknologikoan du egoitza, Eibarren. Aplikazio industrialetan fluidoan egoera monitorizatzeko —batez ere olioarena—, sentsoreak diseinatzen,



Cuida del medio ambiente.

Imprime en blanco y negro y sólo si es necesario.

PRENTSA-OHARRA

fabrikatzen eta merkaturatzen ditu. Elektrizitatearen ekoizpenean eta banaketan erabiltzen dira, besteak beste, sentsore horiek.

Zehazki, Atten2ren lehenengo produktuak, OilHealth eta OilWear sentsoreak, aerosorgailuetan olio monitorizatzeko erabiltzen dira.

IK4-TEKNIKERek eta Atten2k elkarrekin patentatutako eta garatutako teknologia bat dute oinarri sentsore horiek, zeinen bidez eraginkortasuna handitzen den olioaren erabilera intentsiboa egiten den aplikazioetan. Horrela, olioaren egoera urrunetik eta denbora errealean monitoriza daiteke, eta ohiko gainbegiratze-metodoekin baino segimendu askoz hobe egin.

Iberdrolak eta CDTIk Espainian industria-sarea eta ekintzailtza sustatzeko duten konpromisoaren barruan sartzen da inbertsio teknologiko hori, eta gizarte jasangarriago bat lortzeko ekoizpen-eredua aldarazten duten proiektu berritzaileak sustatzea du xede.

Iberdrola, CDTI - INNVIERTE eta IK4-TEKNIKERi buruz

Garapen Teknologiko eta Industrialerako Zentroa (CDTI) Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren mendeko enpresa-erakunde publiko bat da, eta hau du helburu: Espainiako enpresa-sareak ezagutza zientifiko-teknikoa sortzea eta hura hazkunde jasangarri eta globalki lehiakor bihurtzea.

CDTIk, INNVIERTE programaren bidez, enpresa-berrikuntza sustatzen du, oinarri teknologikoko enpresetan edo enpresa berritzaileetan arrisku-kapitaleko inbertsioak babestuz. Espainiako ETE teknologikoetan kapital pribatua sartzea da helburua, merkatuko baldintza berberetan, haien jarduera teknologikoak babesteko ez ezik, kudeatzeko eta nazioartekotzeko gaitasuna eta merkatuari buruzko ezagutzak emateko ere.

INNVIERTEk arrisku-kapitaleko zazpi erakundetan hartzen du parte, eta koinbertsioko hiru hitzarmen ditu aktibo. Horien guztien bitartez, 99 milioi euro baino gehiago inbertitu ditu 83 enpresatan.



PRENTSA-OHARRA

Iberdrolak, berriz, 2012az geroztik hartzen du parte programa horretan, Perseo funtsaren bidez arrisku-kapitaleko ekimenetan duen esperientziagatik hautatua izan eta gero. Perseo funtsa Iberdrolak sortu zuen, energiaren sektoreko puntako teknologia jasangarrietan inbertitzeko.

2008an jarri zen martxan, eta Iberdrolaren I+G+Bko strategiaren parte da. Programa horren bidez, Iberdrolak zuzenean inbertitzen du *start up* teknologikoetan, teknologia berriak gara ditzaten enpresa horrek energiaren sektorean abangoardian jarraitzen laguntzeko. Programa sortu zenetik, 50 milioi euro baino gehiago inbertitu dira mundu osoko konpainia berritzailetan.

IK4-TEKNIKER Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareari atxikitako ikerketa aplikatuko zentro teknologiko bat da, eta aitzindaria da, besteak beste, mantentze-lanetako, automatizazioko eta robotika industrialeko irtenbideak eta sentsore-gailuak garatzen.

25 enpresa teknologiko baino gehiago merkaturatu ditu, hazteko ahalmen handia duten EAEko enpresa berritzaileak eta oinarri teknologikokoak martxan jartzeko eta sendotzeko.



Cuida del medio ambiente.

Imprime en blanco y negro y sólo si es necesario.